

Euskalingua 30

Aurkezpena

Irakurle on hori,

*Euskalingua 30*ek artikulua bi ditu; Lehenengoa fonetika arlokoa da eta I. Gaminde, N. Eguskiza, A. Iglesias eta L. Unamunok sinatzen dabe; sexuaren eragina Igorreko gazteen ahoskeran aztertu eta kuantifikatu dabe. Bigarrenak, M. Ormazabalek idatzita, Tanzaniako zenbait triburen informazioa eskaintzen dau eta eurei dagozkien datuak aurkezten ditu, batez ere, bertako hizkuntzen izendapenei eta hiztun kopuruei buruzkoak.

EUDIA taldeko Iñaki Gamindek, Nahia Eguskizak, Aitor Iglesiasek eta Lorea Unamunok *Sexuaren eragina Igorreko afrikatu bizkarkarien tasun akustikoetan* izeneko artikuluan, euskararen mendebaldeko barrietatean “tz” eta “tx” hots afrikatuen ahoskera bateratzen ete dabilen susmotik abiatuta, Igorre aukeratu dabe aztertzeko. Bertan 24-26 urteko sei gazteren, hiru mutil eta hiru neska, ahots-ekoizpenak grabatu ditue eta ondoren aztertu. Azterketa horren ondorioz, izari batzuetan nesken eta mutilen arteko aldeak ez direla homogeenak ikusi da, hala ere, esan daiteke, informatzaileok afrikatu bakarra darabilela, baina sexuaren araberako diferentzia dagoela: neskek “tz”ra jo dabela eta mutilek “tx”ra.

Manu Ormazabalek *Tanzaniako Tribuak (I)* izeneko artikulua ekarri dau. Bertan Tanzaniako 127 hizkuntzetatik 31ren berri emoten dau; eurotarik batzuek aztertuta ei dagoz, beste batzuek, ostera, ez ei dagoz jasota, ez ei dago informazio eskuragarririk. Hiztun-kopuruei dagokienez ere, hizkuntza batzuek milioitik gora hiztun ditue eta beste batzuek 500 baino ez, hau da, hainbat hizkuntza dagoz galtzeko arriskuan; dibertsitate handiko egoera linguistikoak azaltzen dira artikulua honetan. Hizkuntzen informazioa eskaintzeagaz batera, tribu bakoitzaren informazio demografikoa, ohitura ezagunak, erlijioa eta abarri buruzko datuak ere aurkitu daitezke bertan.

*Euskalingua 30*eko artikuluan gaiei eta eurotarik jaso daitekeen informazioari interesgarri iritziko deusezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitugu.

Aulestin, 2017ko maiatzaren 30ean

Lorea Unamuno lorea.unamuno@ehu.eus

Maribi Unamuno victoria.unamuno@ehu.eus

Koeditoreak